



2  
0  
OROITIDAZK1A  
8



# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b>	<b>3 or.</b>
<b>1. ERAKUNDEAREN JARDUERAK</b>	<b>4 or.</b>
<b>I. Barneko jarduera</b>	<b>5 or.</b>
<b>II. Kanpoko jarduera</b>	<b>6 or.</b>
<b>III. Euskaltzainak</b>	<b>14 or.</b>
<b>2. JARDUERA AKADEMIKOA</b>	<b>15 or.</b>
<b>I. Hiztegegintza</b>	<b>16 or.</b>
<b>II. Gramatika</b>	<b>17 or.</b>
<b>III. Dialektologia</b>	<b>17 or.</b>
<b>IV. Onomastika</b>	<b>17 or.</b>
<b>V. Literatura</b>	<b>19 or.</b>
<b>VI. Ahoskera</b>	<b>20 or.</b>
<b>VII. Jagon Saila</b>	<b>20 or.</b>
<b>VIII. Egiturazko batzordeak</b>	<b>22 or.</b>
<b>IX. Resurreccion María de Azkue Literatura Sariak</b>	<b>23 or.</b>
<b>3. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK</b>	<b>24 or.</b>
<b>I. Azkue Biblioteka eta Artxiboa zerbitzua</b>	<b>25 or.</b>
<b>II. Onomastika zerbitzua</b>	<b>26 or.</b>
<b>III. Argitalpen zerbitzua</b>	<b>26 or.</b>
<b>IV. Informatika zerbitzua</b>	<b>26 or.</b>
<b>V. Komunikazioa eta Irudia zerbitzua</b>	<b>26 or.</b>
<b>VI. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua</b>	<b>27 or.</b>
<b>4. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK</b>	<b>28 or.</b>
<b>5. WEBGUNEA ETA GIZARTERATZE LANA</b>	<b>31 or.</b>
<b>6. BALANTZE EKONOMIKOA</b>	<b>33 or.</b>

# AURKEZPENA



Xabier Kintana, idazkaria

Berriz ere heldu da Euskaltzaindiaren Oroitidazkia argitaratzeko abagunea. Ohi bezala, bertan argitara ematen ditu gure Akademiak iazko urtean egindako bilkura bereziak, argitalpenen berriak, etxe-ko, auzoko zein atzerriko erakundeekin izandako harremanak, hizkuntzari buruzko azterketa eta erabakiak, euskaltzainen proiektu eta lanak, eta abar.

Inoiz zeregin horiek denboraz atzeratu egiten dira, testuen moldaketa, idazketa eta inprimatze-lanek hasieran uste baino luzeagoak izaten direlako, baina bere armarriko hitzei jarraituz, Euskaltzaindiak etengabeki segitzen du aurrera, euskal gizarteak hizkuntzari doakionez nahi eta behar dituen kontuak jorratuz, aztertuz eta erabakiz.

Informatikaren garai honetan Euskaltzaindiak bere mezuak jakinarazi eta hedarazteko, ahalik eta lasterren ahal den jende gehienengana hel daitezten, tradiziozko eraz inprimatuaz gainera, eta gaurko metodo informatikoez baliatuz, bere web orrian ematen ditu, nork bere ordenagailuan zuzenik jaso ditzan.

Akademiak 2018/2019. urteetan ehun urte betetzen ditu, eta efemeride hori ospatzeko, biltzar, erakusketa eta eginkizun bereziak antolatu ditu Euskal Herriko geografia osoan zehar, eta 2018ari dagozkionak, zehaztasunez eta argazkiekin argituak, eskaintzen dira, gure jendea behar bezala informaturik egon dadin. Ezin zitekeen bestela izan Akademiak botere publikoetatik jasoriko onarpen, agindu eta laguntzekin konplitzeko, gutxienez horrenbeste egitera beharturik baitago.

Batzar berezi horietan beste herrialde eta akademien kideen partaidetza izan dugu, ofizialtasun osorik gabeko mintzairaren egoera eta arazoak, maiz oso antzekoak, azaldu eta proposatu zaizkien irtenbideak erakusteko.

Bestela ere, ohi bezala, Euskaltzaindiak lagunduriko literatur lehiaketak azaltzen dira, gazte jendearen artean euskal letretarako zaletasuna bultzatzeko, sariak eta beren idazlanen argitalpena bideratuz. Arlo berean, gure herrian urtero antolatzen diren liburu azoketan ere partaide izan da Akademia. Jendeari gure erakundeak

urtero argitara ematen dituen obrak erakutsi, saldu, eta, bide batez, erosle eta pertsona interesatuekin harreman zuzenak izateko. Izan ere, norabidea ez galtzeko, interesgarri bezain beharrezkoa izaten da jendearen kezka zuzenik entzutea, mundu guztiak jakin dezan gure Akademia bere herriaren zerbitzuan sortu zela, eta hizkuntzaren aldeko lanak aurrera ateratzeko, garaian garaiko tresnekin eta dedikazio osoaz segitzen duela lanean.

Informatikaren garapenaren garaian, Euskaltzaindiak etengabeko ahaleginak egiten dihardu bere erabaki, gomendio eta argitalpenak era digitalean eskaintzeko, erabiltzaileengana ahalik eta lasterren eta egokienik hel daitezten.

Euskararen ofizialtasunak gure hizkuntzari erabilera publiko ugari izateko aukerak ekarri dizkio. Horrexegatik maiz administrazio publikotik eskariak datozkigu, pertsonen izen-deiturak, toponimia (mendi, ibai, laku, eskualde, herri eta kale-karriken izenak) eta administrazio-izendapenak era egokian moldatzeko. Eta horri behar bezala erantzuten ahalegindu da Euskaltzaindia.

Ospakizunen artean, bereziki aipatzekoa izan da Arantzazun euskara batuaren mende erdia gogoratzeko antolatua, euskaltzainak, politika eta kulturaren arloko agintariak eta publiko ugaria erakarrri zituena. Hartan berrogeita hamar urteotan bizi izandako gorabeherak aztertu ziren. Eskertzekoa izan zen kanpoko hizkuntzalariek (katalan, galego, frisiarrek...) izandako partaidetasuna, nork bere herrian antzeko egoeran izandako esperientziak azalduz.

Liburu asko eman ditu argitara gure Akademiak joan den urtean. Batzuk idazteko arauak eta datuak jakinarazi eta literatur balio klasiko eta berriak bultzatzeko, horien artean *Euskara Batuaren Eskuliburua*, orain arteko agindu eta gomendioak era didaktiko errazean ordenatuki plazaratzeko. Horien artean *Erlea* literatur aldizkariaren hamabigarren zenbakia ere kaleratu da, Bernardo Atxagaren zuzendaritzapean. Era berean *Euskal Herri Hizkeren Atlas*a beste ale batekin aberastu da, jadanik IX.a plazaratu baita. Ekonomiari doakionez, Euskaltzaindia, ohi bezala, ahalegindu da jaso dituen dirulaguntzen araberrako gastuak egiten, arlo ezberdinen arteko oreka mantenduz, bere tokian erabileraren xehetasunak emanez.

Bestalde, denboraren joanean euskaltzainen artean izandako zulo edo hutsarteak betetzeko (oraingoan Joan Mari Torrealdaik eta Patsi Uribarrenek 75na urte betetzean), horien ordean Roberto Gonzalez de Viñaspre arabarra (18. jarlekua) eta Miriam Urkia gipuzkoarra (29. aulkia) izendatu dira euskaltzain oso, gure hizkuntzaren alde orain arte, bata toponimian eta besteak lexikografian, egindako lan nabariengatik.

Hauek eta beste kontu eta ekitaldi azpimarragarri batzuk dira oroitidazki honetan agertuko zaizkizunak, gure erakundeak joan den 2018. urtean egindako bidearen munarri nabarmenenak erakusteko.

# 1. ERAKUNDEAREN JARDUERA





## I. BARNEKO JARDUERA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzorde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko osoko bilkurak arau maila ematen diete batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Lau urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariak ere izaten dituzte batzordeek. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta hainbat esparrutako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutuetoako irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak, administrazioko teknikariak eta beste.

Euskaltzaindiko osoko bilkurak, hilean behin egiten direnak, batzorde akademikoetatik datozen hizkuntza-proposamenei arau gradua ematen die. Batzorde akademikoak egoitzan edo lurraldeetako ordezkarietan biltzen dira. Idazkariordearen zeregina da batzorde horien jarraipena eta koordinazioa aurrera eramatea.

Euskaltzaindiak bere egoitza Bilbon dauka. Osoko bilkurak eta Zuzendaritza batzordearen bilerak, normalean, egoitzan eta Donostiako ordezkarietan egiten dira, nahiz eta, zenbait kasutan, erakunde edo elkarte batzuen gonbita onartzen den, eta horien egoitzetan bilera batzuk ere burutzen diren.

Zuzendaritza batzordea hamabostero biltzen da. Honen kideak dira euskaltzainburua, euskaltzain buruordea, idazkaria, Iker eta Jagon sailtako buruak, kudeatzailea eta idazkariordea. Haien zeregina da Euskaltzaindiaren funtzionamendu ona bermatzea. Kudeatzaileak eta idazkariordeak, jorratu beharreko gaien arabera, arduradun bakoitzarekiko koordinazio-lanak burutzen dituzte.

### I. 1. Erakundearen 2018ko bilera nagusiak

HILABETEA	EGUNA	TOKIA	JARDUERA
Urtarrila	26	Donostia	Osoko bilkura
Urtarrila	26	Donostia	Ageriko bilkura
Otsaila	23	Iruñea	Osoko bilkura
Martxoa	23	Gasteiz	Osoko bilkura
Apirila	27	Bilbo	Osoko bilkura
Maiatza	25	Baiona	Osoko bilkura
Ekaina	29	Bilbo	Osoko bilkura
Uztaila	20	Donostia	Osoko bilkura
Iraila	28	Bilbo	Osoko bilkura
Urria	26	Gasteiz	Osoko bilkura
Azaroa	23	Donostia	Osoko bilkura
Azaroa	23	Donostia	Ageriko bilkura



Maiatzean, Baionan egindako osoko bilkura



## I. 2. Webgunea

2018ko urrian webgune berriztatua aurkeztu dugu. Itxura modernoaz gain, atariak erabiltzaile bizkorra eta baliabide berriak eskaintzen ditu. Hau dela eta, bisitarien kopuruak nabarmen egin du gora ordutik. Euskaltzaindiaren webguneak 1.039.530 bisita izan ditu 2018an (2017an baino 183.501 gehiago) eta 4.431.147 bistaratze. Era berean, Akademiaren atari digitalean gehien bisitatu diren edukiak *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (1.261.585) eta Euskal Onomastikaren Datutegia (1.128.898) izan dira.

2018an, *Euskara Batua*ren *Eskuliburua* sarean jarri da, erabiltzaileentzat doan, eta berehala izan du arrakasta (46.668 bistaratze urrian, azaroan 17.331 eta abenduan 11.371).

## II. KANPOKO JARDUERA

### Euskaltzaindiaren Mendeurrena

Akademiak martxoaren 23an egindako ekitaldian, Euskaltzaindiak Mendeurreneko egitarauaren atal bat aurkeztu du Bilboko egoitza nagusian. Halaber, Mendeurrenerako izango duen logo berria ere erakutsi da. Aukeran dantza taldeko kideak izan ditu bidelagun agerpenean, eta Mendeurreneko ospakizunen asmo eta helburuak ere aletu dira.

Guztira, bederatzi izango dira Akademiak antolatuko dituen nazioarteko kongresuak, 2018ko irailean hasi eta 2019ko iraila bitartean egingo direnak. Euskararen lurralde guztietan egingo dira, Euskaltzaindiaren batzorde, lantalde eta egitasmo guztien parte hartzearekin. Halaber, Akademiaren jardun eremu eta aztergai guztiak jorratuko dira kongresuetan.

Agerrpenean parte hartu dute Andres Urrutia euskaltzainburuak, Sagrario Aleman Sustapen batzordeko buruak eta Ibon Usarralde Mendeurreneko batzordeko bateratzaileak.

### II.1. “Euskara batua eta Ipar Euskal Herria (1964-2018)” jardunaldia

1968ko Arantzazuko Biltzarra baino lau urte lehenago, euskaltzale talde bat euskara arautu, estandar eta batua sortzearen premiaz eztabaidatzen hasi zen, Baionan, Txillardegi buru zutela. Hizkuntza bateratzea euskara kultura mintzaira bihurtzeko ezinbesteko baldintza zela uste zuten.

Irailaren 13an egin den jardunaldi honetan, Baionako 1960ko hamarkadako topaketa horien testuinguru sozial eta historikoa aztertu da. Beste batzuen artean, bilera haietan parte hartu zuten eta bizirik dirauten hiru lagunetik bi mintzatu dira, 54 urteren ondoren.

Bigarren helburua euskara batuak Ipar Euskal Herrian hamarkada hauetan izan duen bilakaeraz eta etorkizunean izan ditzakeen aukerez hausnartzea izan da. Horretarako, euskara komunikazio tresna duten hainbat sektoretako ordezkariak hartu dute hitza: irakaskuntza, hedabideak, administrazioa, literatur sorkuntza eta beste.

Jardunaldian arreta berezia jarri da euskalkietan, eta horiek euskara batuarekin lotura egokia behar dutela izan aldarrikatu da. Nabarmendu da Ipar Euskal



Sagrario Aleman eta Andres Urrutia Mendeurreneko egitaraua aurkezten



Baionako jardunaldia: Joseba Intxausti, Gexan Alfaro, Eneko Irigarai, Gexan Alfaro, Jean-Louis Davant eta Janbattit Dirassar



Herrian badela maiz erabiltzen den nafar-lapurtera estandarra, batua eta bertoko hizkeren artean zubi lanak egiten dituen. Zuberoan, aldiz, zuberera lantzen da, baina, elkar hobeki ulertzeko helburuarekin, batuarengandik hurbilago dagoen zuberera.

## II.2. Euskara batuaren 50. urteurrena: “Arantzazutik mundu zabalera” biltzarra

Urriaren 4, 5 eta 6an, euskara batuaren 50. urteurrena ospatzeko asmoarekin, Euskaltzaindiak, Arantzazun, batua sortu zen leku berean, XVII. Biltzarra egin du. Mende erdi pasa ostean balantzea egiteko sasoia da, eta, bilakaera aztertzearekin batera, gaur egungo egoeraren diagnosi egokia egin nahi izan da, modu horretan etorkizuneko erronkei nola aurre egin erabakitzeko. Horretarako euskara batua lanabes izan duten eta duten hainbat sektoretako (irakaskuntza, hedabideak, administrazioa, literatur sortzaileak, itzultzaileak, abokatuak, lanbide arloko adituak, hizkuntzaren teknologiak...) kideek hartu dute parte.

Hizkuntzen estandarizazioa beste hizkuntza gutxitu askotan gertatu izan da azken hamarkadetan. Biltzar honetan galegoaren, frasieraren eta katalanaren ordezkariak beraien esperientzia kontatu dute.

Guztira, biltzarrean hainbat naziotako 40tik gora hizlarik hartu dute parte. Azkenik, duela 50 urte egindako lana eta apustua berresteko, “Euskara batuaren adierazpena” aurkeztu da, eta euskararen alorrean lan egiten duten eragileek sinatu dute.

### Jardunaldiak eta mintegiak

## II.3. ‘Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak’

Ezkerraberri Fundazioak eta Euskaltzaindiak euskararen erabilera informala aztertzeke jardunaldi bat antolatu dute ekainaren leian: ‘Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak’.

Donostian Euskaltzaindiak duen ordezkarietan (Luis Villasante Euskararen Ikergunea) egin da jardunaldia, eta hizlari hauek hartu dute parte: Mikel Zalbide, Inma Muñoa, Orreaga Ibarra, Asisko Urmeneta, Adolfo Arejita, Joxerra Gartzia eta Xabier Euzkitze.

## II.4. Euskararen erabilera sustatzeko gakoei buruzko jardunaldia

Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak antolaturiko ekimen hau uztailaren 12an egin da Fundazioaren egoitzan. Bertan, euskal kulturgintzan oro har, eta, zehatzago, euskararen biziberritze politikan adituak diren 50etik gora eragilek parte hartu dute.

## II.5. Mariano Mendigatxaren mendeurrena

Erronkari bailarako Bidankoze herrian, irailaren leian, Mariano Mendigatxaren heriotzaren mendeurrena gogoratu da. Marianok, nekazaria izateaz gain, ekimen askotan jardun zuen buru-belarri. Erronkarieraz oso ongi mintzo zelarik,



Biltzarreko antolatzaileak, babesleak eta herri erakundeetako ordezkariak



“Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak” jardunaldia



Bidankozen, Mariano Mendigatxaren heriotzaren mendeurrenean



Resurreccion Maria Azkuek euskararen aldaera desberdinak biltzeko egin zituen saioetan informatzaile gisa aritu zen. Horren adibide garbia da Mendigatxak erronkieraz idatzitako hainbat gutun euskalki horren lekuko gisa gorde direla. Ekitaldi honetan Mendigatxaren omenezko plaka bat aurkeztu da.

## II.6. Gabriel Aresti eta bere garaiari buruzko jardunaldia

Urriaren 18an egin zen jardunaldian, Aresti bizi izan zen garaiaz eztabaidatu da: 1960 eta 1970eko hamarkadetako testuinguru soziopolitikoaz, euskalgintza-aren arloan bizitasun handikoa izan zenaz. Urte haietan, frankismo ondorengoko euskal idazle eta eragileen erreleboa hartu zuen belaunaldi berri batek. Halaber, Ikastolen mugimendua, *Anaitasuna* aldizkaria, Lur argitaletxea, Ez Dok Amairu... sortu ziren, eta, horrekin batera euskara batua, Arantzazun 1968an. Mugimendu horietako gehienetan parte hartu zuen Gabriel Aresti idazle, poeta eta euskaltzainak.

Gabrielen garaikide batzuek parte hartu dute jardunaldian: Xabier Kintana, Maite Idirin, Jokin Apalategi, Arantza Garmendia, Iñaki Zarraoa, Jose Ramon Etxebarria, Iñaki Aldekoa eta Kepa Martinez de Lagos.



Gabriel Arestiren garaiari buruzko jardunaldian parte hartu zuten kideak

## Erakusketak eta ziklo kulturalak

### II.7. Ondareari buruzko Europar jardunaldiak

Bizkaiko Foru Aldundiak sustaturiko jardunaldiak Bizkaiko hainbat udalerritan zehar egin dira. 2018ko gai nagusia emakumeak euskal ondareari egindako ekarpena izan da, eta Euskaltzaindiak asmo horrekin bat egin eta bi jardunaldi antolatu ditu Bilboko egoitzan: urriaren 16an, euskal toponimian emakumeak utzitako aztarna eta Trentoko kontziliara arte (1545-1563) erabilitako emakumezko izenen gaia jorratu ziren; eta, urriaren 23an, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean* emakumeen presentzia zein izan den azaldu da.



Amorante abeslaria Garbiñe Ubedarekin solasean

### II.8. Mahai-inguru eta musika kontzertuen zikloak: “Astelehen eta Astearte buruzuriak”

Euskaltzaindiak, Bilboko eta Donostiako udalekin batera, eta Bilboko BIRA Espazioarekin elkarlanean, musika kontzertu ziklo bat antolatu du urria eta azaroa bitartean. Zikloan euskarazko musika giroan erreferente diren hainbat sortzailek parte hartu dute: Amorante, MICE, Petti, Hesian, Mikel Urdangarin, Nizuri Tazuneri eta Paulina & Juliet. Hauetako zenbaitek, kontzertuen aurretik egindako solasaldietan, xehetasunak eman dituzte lan jarduna euskaraz burutzeari buruz.

### II.9. *Ghero* antzerki-lana

Euskaltzaindiak Tartean Teatroak taularatu duen *Ghero* antzezkiuna sustatu eta babestu du. Lehen emanaldia azaroaren 20an izan zen. Lanaren gidoilari Patxo Telleriak antzezkiuna fabulen fabula dela dio. Lanak bederatzi istorio kontatzen dizkigu eta abiapuntua 3000. urteko udazkenean dauka, non azken euskal elebidunak euskara desagertzea ekidin nahi duen.



*Ghero* antzerki-lanaren aurkezpena





## Argitalpenak

### II.10. *Toponimia de Vitoria / Gasteizko toponimia VI: Arratzua II* liburukiaren aurkezpena

Martxoaren 22an aurkeztu da. Gasteizko udalerriko azterketa toponimikoa biltzen duen bildumako seigarren zenbakia da eta Gasteizko Udalak babesten duen egitasmoaren fruitua. Elena Martínez de Madina filologo eta euskaltzain urgazlea da egilea. Liburuki hau, zehazki, Arratzuko merindadearen azterketari eskainiko zaizkion hiruetatik bigarrena da. Aurreko liburukian sei herri ikertu ziren, eta, bigarren honetan, aldiz, zazpi: Aberasturi, Andollu, Argandoña, Askartza, Billafranka, Bolibar eta Uribarri Nagusia.

### II.11. *Esteve Materraren 'Do(c)trina christiana' (1617 & 1623)* liburua aurkezpena

Aurkezpena martxoaren 27an izan da. Liburu hau argitaratu zela lau mende baino gehiago pasatu dira. Bordelen argitaratu zen, eta lapurtera klasikoan idatzitako lehen lantzat hartua izan da. Lan horren edizio kritikoa Aziti Bihia hizkuntzalari taldeak egin du, eta Euskaltzaindiaren “Euskararen Lekukoak” bilduman eta EHUko *ASJU* aldizkariko ‘Monumenta linguae Vasconum: Studia et Instrumenta’ seriean argitaratu da.

### II.12. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IX.* liburukiaren aurkezpena

Aurkezpena 2018ko maiatzaren 23an izan da. Bederatzigarren liburuki honetan, besteak beste, gizon eta emakumeen gorputzen atalen gaineko hitz eta esaerak, eta janzkera zein estetika pertsonalaren, umezaroaren eta sexualitatearen arloko hitzak jaso dira.

### II.13. *Euskara Batuaren Eskuliburua* liburua aurkezpena

1968an, Arantzazuko santutegian egindako biltzarrean sortu zen euskara batua. Berrogeita hamar urte berantago, euskara batua sortu zen leku berean, Euskaltzaindiak XVII. Biltzarra egin du, eta, urriaren 5ean, biltzar horren egitarauaren barnean, *Euskara Batuaren Eskuliburua* argitalpena aurkeztu da. Argitalpen honek etenik gabeko bertsio eguneratua izango du Euskaltzaindiaren webgunean. Lan honen helburu nagusia da Euskaltzaindiak bere historian zehar eman dituen arauak eta gomendioak modu didaktiko batean birformulatzea. Liburuan, era agerikoan erakusten da zer den arau eta zer ez, zer den arautua dagoena eta zer den gomendioa.



Egileetako batzuk eta UPV/EHU eta Euskaltzaindiaren ordezkariak *Esteve Materraren Do(c)trina christiana (1617 & 1623)* liburua aurkezpenean



Atlasaren IX. liburukian parte hartu zutenak: babesleak eta erakundearen ordezkariak



*Euskara Batuaren Eskuliburua* koordinatu duen lantaldea eta Andres Urrutia euskaltzainburua



## II. 14. *Narrazioak eta olerkiak 2017* liburuaren aurkezpena

Urriaren 29an aurkeztu da Resurreccion Maria Azkue Literatura lehiaketan sarituak izan diren haur eta nerabeen narrazioak eta ipuinak biltzen dituen liburuki hau. Saritutako lanen artean daude Maialen Leizaranen “Maitasun ahaztezina”, Anne Arrizabalagaren “Kale Berria” eta Lur Lópezen “Lehen eta orain” olerkia.

## II. 15. *Erlea 12* aldizkariaren aurkezpena

Azaroaren 9an Euskaltzaindiak *Erlea* aldizkari literarioaren 12. zenbakia aurkeztu du, Bilboko egoitzan. Azkena izango omen den zenbaki berri honek Euskaltzaindiaren mendeurrena du gai nagusia. Zenbaki honetan parte hartu dute, besteak beste, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Miel A. Elustondo, Beatriz Chivite, Hasier Larretxea, Amaia Iturbide, Txani Rodriguez, Garbiñe Ubeda, Laura Mintegi, Kepa Altonaga, Nora Arbelbide eta Juan Luis Zabalak.

## II. 16. Euskaltzaindiak Resurreccion Maria Azkueren lana katalogatu eta digitalizatu du

Euskaltzaindiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin eta Jakin elkar-tearekin elkarlanean, Resurreccion Maria Azkueren lan guztiak katalogatu, digitalizatu eta argitaratu ditu. Guztira 911 lan dira, lehenbizikoa 1888koa eta azkena 1951koa. Aurkezpen ekitaldia abenduaren 27an izan da.

## II. 17. *Ardi galdua* liburuaren aurkezpena

Abenduaren 27ko ekitaldi berean, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, Resurreccion Maria Azkuek idatzitako *Ardi Galdua* eleberriaren berrargitalpena aurkeztu da. Ana Toledo eta Elixabete Perez Gazteluk bi testu kontrajarri dituzte: Azkuek orain dela 100 urte idatzi zuena eta, ondoan, bi egileek gaur egun indarrean dagoen ortografiara ekarritakoa. Modu horretan, oraingo euskara batua Azkuek erabiltzen zuen gipuzkera osatuarekin konpara daiteke. Ezaguna da Azkuek eredu hori euskara batua sorburua edo kimua izatea nahi zuela.



Bernardo Atxaga eta Andres Urrutia *Erlea 12*ren aurkezpenean



Josune Ariztondo, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdei, Andres Urrutia eta Elixabete Perez Gaztelu



## Ospakizunak

### II. 18. Xalbador Eguna

2004tik hona urtero legez, Nafarroa Behereko Urepele udalerrian Fernando Aire “Xalbador” omentzen duen jaia egin da urriaren 20an eta 21ean. Urepeleko bertsolari handiaz gogoratzeaz gain, aurten, Xalbador Egunean Ipar Euskal Herriko hiru bertsolari-ri oroitza berezia egin zaie: Joanes Arrosagaray, Ernest Alkat eta Fermin Mihura. Guztiek ehunka bertso idatzi zituzten, horietarik asko Auspoa bilduman argitaratuak, eta, beraz, Euskaltzaindiaren webgunean ikusgai.

Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak antolatzen duten jardunaldian, zenbait belaunalditako bertsolariek abestu dute, artean, Jose Luis Gorrotxategik, zeinek bere erretiroa iragarri eta jendaurreko azken bertsoa abestu duen.



Xalbador Egunean abestu zuen Jose Luis Gorrotxategik, publikoaren aurrean, azkenengo aldiz

## Liburu Azokak

### II. 19. Sara

Apirilaren 2an, Sarako Idazleen Biltzarrean, Jean-Baptiste Coyosek prestatuturiko lan hau aurkeztu da: *Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa*. Aurkezpen ekitaldian egon dira: Aignes Dufau, liburuaren txostengileetako bat; Jean-René Echegaray, Euskal Elkargoko presidentea; Beñat Arrabit, Euskararen Erakunde Publikoaren presidentea; eta Xarles Videgain, Euskaltzaindiko lehendakariordea.

Aurten, Idazleen Biltzarreko antolatzaileek Koldo Zuazo dialektologo eta euskaltzain urgazlea omendu dute.



Euskaltzaindiaren azken argitalpenen aurkezpena Sarako Idazleen Biltzarrean

### II. 20. Bilbo

Euskaltzaindiak Bilboko Liburu Azokan parte hartu du. Azokak maiatzaren 31tik ekainaren 10era arteko iraupena izan du, eta Akademiak izan duen saltokian azken argitalpenak egon dira ikusgai.

### II. 21. Durango

Abenduaren 5etik 9ra Euskaltzaindia Durangoko 52. Liburu eta Disko Azokan egon da. Durangokoa erreferente garrantzitsua da euskal kulturarentzat, eta Euskaltzaindiak lehenengo ediziotik hartu du parte. 2018an, beste argitalpen batzuekin batera, nobedade bi aurkeztu dira: *Euskara Batuaren Eskuliburua* eta *Erlea* aldizkariaren 12. zenbakia.



Euskaltzaindiaren saltokia Durangoko Azokan



## Sariak eta omenaldiak

2018an zehar Euskaltzaindiak hainbat sari eta omenaldi jaso ditu:

### II.22. Radio Bilbaoren Bikaintasun Saria

Apirilaren 17an, Bilboko Alhondegian (Azkuna Zentroa), Euskara ataleko Radio Bilbaoren (SER irrati katea) Bikaintasun Saria jaso du Euskaltzaindiak. Honela, ehun urtez Akademiak "euskararen zaintzan eta erabileran egindako lan eskergea" saritu nahi izan dute Radio Bilbao irratiko arduradunek.



Radio Bilbaoren Bikaintasun Sariak

### II.23. Arabako Foru Aldundiak Urrezko Domina eman die Eusko Ikaskuntzari eta Euskaltzaindiari

Arabako Foru Aldundiak, 2018ko Arabako Domina eman die Euskaltzaindiari eta Eusko Ikaskuntzari, bi erakunde horiek sortu zireneko 100. urteurrenean. Apirilaren 28an, Artium museoan ospatu den ekitaldian, bi erakundeek Arabaren eta Euskal Herriaren hizkuntza, gizarte eta kultur ondarearen sustatzaile eta eragile moduan egindako "lan itzel eta goresgarria" goraitatu du Ramiro González Arabako diputatu nagusiak.



Euskaltzaindiko ordezkariak Arabako Foru Aldundian

### II.24. Gau Zuriak Euskaltzaindia omendu du

Bilbao 700 Fundazioak kontuan izan du Akademiaren ehun urteko jardun oparoa, eta gorazarre berezi bat egin nahi izan dio, ekainaren 15ean, zortzi eguzkilore 'landatuz' Euskaltzaindiaren egoitza nagusia (Plaza Barria, 15). Euskaltzaindiarekin batera, Indautxuko Eskola ere omendu dute, bere mendeurrenean.

### II.25. Euskaltzaindiak Bilboko Hiriko Urrezko Domina jaso du

Bilboko Udalak hiriko Urrezko Domina eman dio Euskaltzaindiari, urriaren 26an egindako ekitaldian, Akademia sortu zeneko ehungarren urteurrena betetzean, udalbatzako alderdi politiko guztiek aho batez hala erabakita.



Euskaltzainak Juan Mari Aburto Bilboko alkatearekin



## II.26. Euskaltzaindia eta Joxe Mari Iriondo ohorezko euskaltzaina Euskal Kazetaritza saridunen artean

Euskal Kazetarien Elkarteak ematen duen Pertsonaia edo Giza Institutioa Saria Euskaltzaindiarentzat eta Eusko Ikaskuntzarentzat izan da, “euskararen kontserbazio eta defentsaren alde egindako aparteko lanagatik eta beren 100. urteurrenagatik”. Sari-emate ekitaldia azaroaren 7an izan da.

## II. 27. Euskaltzaindiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Saria jaso du

Sari-emate ekitaldia azaroaren 16an izan da. Epaimahaiak nabarmendu du erakundearen bizi-luzetasuna eta ibilbidea, eta balioetsi du Euskaltzaindiari saria emateko aukera bere sorreraren mendeurrena eta euskara batuaren 50. urteurrena betetzen direnean. Hain zuzen ere, euskara batua gizartearen arlo guztietan aitortzen eta partekatzen den ondarea da, erakundeak euskara zaindu, ikertu eta bultzatzeko egindako lanari esker; lehen mailako ondare immateriala da, eta gure kultura identitatearen funtsezko adierazpena. Enfasia egin dute, baita ere, “erakundeak ondasun hau biziberritzeko izan duen gaitasunean, eta euskararen zabalakundeak eta erabilerak gure gizartean izan duen eragina eta sortu duen eraldaketa kulturala”.

## II. 28. Euskaltzaindiak Ortzadar Saria jaso du

Abenduaren 17an, Noticias Taldearen 2018 Ortzadar Saria jaso du Euskaltzaindiak. Kike Hermosilla Iparragirre argitaletxeko merkataritza zuzendariak eman dio saria Andres Urrutia euskaltzainburuari, Akademiaren Bilboko egoitzan.



Euskal Kazetaritza saridunak



Andres Urrutia Ondare saria jasotzen Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiaren, eta Denis Itxaso kultura diputatuaren eskuetatik



### III. EUSKALTZAINAK

- 2018ko irailaren 24an, Junes Casenave-Harigile ohorezko euskaltzaina hil da.
- 2018ko ekainaren 7an, Manex Pagola euskaltzain urgazlea hil da.
- 2018ko azaroaren 14an, Xalbador Garmendia euskaltzain urgazlea hil da.

2018ko otsailaren 23an egin den Osoko bilkuran, Miriam Urkia eta Roberto González de Viñaspre euskaltzain oso izendatu dira.

Urte berean, apirilaren 27an egin den Osoko bilkuran, hamasei ohorezko euskaltzain berri izendatu dira: Jose Antonio Aduriz, Martxel Andrinua, Txaro Arteaga, Maria Jose Azurmendi, Miren Jone Azurza, Henri Duhau, Izaskun Gastesi, Abel Muniategi, Manex Pagola, Jose Maria Rementeria, Sabin Salaberri, Txomin Solabarrieta, Julen Urkiza, Arantxa Urretabizkaia, Pello Zabala eta Auxtin Zamora. Aldiz, uztailaren 20an egin den Osoko bilkuran, hamabi euskaltzain urgazle berri izendatu dira: Andres Alberdi, Irene Arrarats, Xabier Peritz Mendizabal 'Euzkitze', Josu Pikabea, Luis Mari Zaldúa, Jon Aizpurua, Ainhoa Arregi, Asier Bidart, Agurtzane Elordui, Gotzon Lobera, Céline Mounole eta Allande Socarros.



Roberto Gonzalez de Viñaspre eta Miriam Urkia



Euskaltzain urgazleak diploma jasotzen

#### Euskaltzainak zenbakitan

Euskaltzainak	2017-12-31			2018-12-31		
	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
<b>Osoak</b>	24	19	5	26	20	6
<b>Emerituak</b>	3	3	0	3	3	0
<b>Ohorezkoak</b>	33	30	3	48	40	8
<b>Urgazleak</b>	146	111	35	156	117	39
<b>GUZTIRA</b>	206	163	43	233	180	53

## 2. JARDUERA AKADEMIKOA





Euskaltzaindiaren akademia jarduera batzorde, egitasmo eta zerbitzuen bidez garatzen da. Hileroko Osoko bilkurak arau maila ematen die batzordeetatik datozen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Lau urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariak ere izaten dituzte batzordeek. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain osoak, urgazleak eta hainbat esparrutako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitate-tako eta institutu-tako irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, hedabide-tako teknikariak, itzultzaileak, hiztegi-gileak, administratzaio-tako teknikariak eta beste.

## I. HIZTEGIGINTZA

Lexikografia ikerketak behar-beharrezkoak dira hizkuntza akademia baten jardunean. Bai *Orotariko Euskal Hiztegia* bai *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. *Adierak eta adibideak* etenik gabeko eguneratze prozesuan daude.

### I. 1. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak

Hiztegi honen abiapuntua Euskaltzaindiaren Hiztegia lantaldea da, hiztegia osatuko duten formak proposatzeaz arduratzen dena. Proposatutako forma horiek adieraz eta adibidez hornitzen ditu egitasmoko taldeak, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* osatuz.

2018an sarrera eta azpisarrera berriak gehitu dira sarean kontsultagai dagoen hiztegian, etengabe eguneratzen baita. Horrekin batera, lehendik jasotako formak berraztertu eta adierak osatu dira.

### I. 2. Orotariko Euskal Hiztegia egitasmoa

XVIII. mendearen lehen zatiko testu garrantzitsuak hustu (guztira 19.500 testu-hitz) eta gainerako adibideen artean txertatu dira *Orotariko Euskal Hiztegia*. Aztertu diren testuak Xurioren *Imitazio-nea*-ren II. eta IV. liburukiak eta Larramendiren *Azkoitiko Sermoia* dira.

Orobat egin da XIX. mendearen bukaerako D. Agirreren *Ioan-etorribat Erromara* eta *Sermoiak* liburuekin (guztira 117.000 testu-hitz), eta baita 1929ko A. Anabitarteren *Usauri* nobelarekin ere (28.000 testu-hitz).

Iturri-kritikari dagokionez, Lhandek dakartzan Foixen hiztegiko aipamen asko zuzendu dira, eskuizkribuan egiaztatuz. Izan ere, huts asko zeuden haietan, bai formari bai esanahiari buruzkoak.

### I. 3. Zientzia eta Teknika Hiztegia egitasmoa

Egitasmo honek 2008an hasi zuen ibilbidea, zientziaren eta teknikaren alorrean erabilitako terminologia aztertzeke eta biltzeko asmoarekin. Osoko bilkurari arlo horietako oinarritzko terminoen zerrenda aurkeztea da helburua, honek onartu ondoren *Euskaltzaindiaren Hiztegia* txerta daitezten.

2018an, alorreko espezialistekin elkarlanean, lurraren zientzietako eta meteorologiako alorretan gehitu beharreko terminoak hautatu dira, eta beraien eztabaida eta onarpena hasi da.

### I.4. Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa egitasmoa

2017an, EHHEn lehen edizioaren erredakzioa burutu zen. 2018an zehar, berriz, espero baino luzeago jo duten inprenta proben zuzenketa xehearekin aritu da lantaldea. Horretaz gain, aurkibideak eurak eta hitzaurrea osatu eta berregin beharrak lana behar baino gehiago luzarazi du. 200 familiatan sailkatuta, 2.600 hitz ingururen informazio historiko eta etimologikoa biltzen du hiztegiak. Aurretik hitzaurre luzea du, bi eranskinekin: bata, hitzen lehen agerraldien zerrenda; bestea, hiztegiaren familiakako antolamendua erakusten duena. Hiztegiaren gorputzaren ondotik, berriz, lau aurkibide ezberdin ditu.

### I.5. Lexikoaren Behatokia egitasmoa

Lexikoaren Behatokia Euskaltzaindiak UZEI, Elhuyar eta UPV/EHUko IXA taldearekin elkarlanean egiten duen proiektua da. Helburua corpus bat osatzea da, testu etiketatutako biltzen dituen eta lexikoaren azterketarako modu egokian antolatua dagoena. Lexikoari buruzko arauak eta proposamenak dokumentatzeko tresna guztiz baliagarria da.

2018an corpusa katalogatzen, etiketatzen eta prozesatzen jarraitu du Euskaltzaindiak, aurten sareratzea atzeratu egin bada ere. Izan ere, webguneko bilatzailea hobetu nahi izan du Akademiak, zerbitzu azkarragoa eta zehatzagoa emateko. Beraz, 2019an sareratuko da 2018an landutakoa, bilatzaile berriarekin batera.

Proiektu hau aurrera eramanez ahal izateko, Euskaltzaindiak etengabe sinatzen ditu hitzarmenak komunikabideekin eta bestelako erakundeekin, haien testu-sorkuntza Euskaltzaindiaren esku jarri eta corpusean baliatu ahal izateko, betiere modu egokian etiketatuta eta katalogatuta.





## II. GRAMATIKA

2018. urtean, Batzordeak *Euskararen Gramatika* proiektua lantzen jarraitu du. Kapitulu hauek ondu dira: “Kasuak eta argumentuak”, “Postposizioak”, “Egiturazko kasuak”, “Argumentuak eta adjuntzuak”, “Morfologia: hitz eratorriak”, “Hitz-ordena eta euskararen sintaxia”, “Ondoriozko perpausak”, “Konparaziozko perpausak eta konparazioa oinarri duten beste egitura batzuk”, “Perpaus osagarriak”, “Perpaus erlatibo jokatuak” eta “Moduzko perpausak”.

Halaber, honako txosten hauek idazten hasi dira, 2019an amaitzeko: “Kontzesio perpausak”, “Aditz jokatuak”, “Aditz jokatuak”, “Perpaus erlatibo jokatuak”, “Aditz motak”, “Perpaus motak” eta “Predikazioa”.

Azken urteetan ez bezala, 2018an ez da jaso Jagonet aholku-zerbitzuko galderarik.

## III. DIALEKTOLOGIA

### III. 1. Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa

1986. urtean galdekizuna, inkesta-lekuak eta lan-metodologia zehaztu ostean, Euskaltzaindiak urtebeteko epean ekin zion inkestak egiteari Euskal Herriko 145 herri eta auzotan (73 EAEn, 27 Nafarroako Foru Komunitatean eta 45 Ipar Euskal Herrian).

2018an, Atlasaren X. liburukia bukatua eman zaio maketatzaileri, azken honek inprentarako materiala presta dezan. Horrekin batera, I. eta VII. liburukietako audioak landu eta orotara 45.000 erantzun etiketatu dira.

Halaber, maiatzaren 22an, Euskaltzaindiak IX. liburukia aurkeztu du Bilbon. Aurrekoak bezala, hau ere Laboral Kutxaren babesarekin argitaratu da, eta, oraingoan, lexikoari buruzko edukiak biltzen ditu: gizon-emakumeen gorputza, elikadura, jantziak, oinetakoak, sexualitatea, haurtzaroa... Eduki bera PDF formatuan eskaintzen duen CDa erantsi zaio liburuari.

Bestalde, argitalpen hau Euskaltzaindiaren webgunean zabaldu da, eta, hein berean, Atlasaren edukia zabaltzeko asmoarekin, Euskara Ibiltaria erakusketaren edizio berri baterako lanak abiatu dira. Erakusketa berri hori, orain arte, Euskaltzaindiak egin izan duena du oinarri, baina eduki eta formatu berriak gaineratuko zaizkio. Helburua, bisitariak, aldi berean jolastu eta euskararekin esperimentatzeko aukera izango duen espazio bat sortzea da. Euskararen aberastasun dialektala ezagutaraziko duen erakusketa didaktikoa.

## IV. ONOMASTIKA

### IV. 1. Onomastika batzordea

Batzordearen eginkizuna euskal onomastika aztertzea eta arautzea da, hau da, pertsona-izenak, deiturak eta leku-izenak. Termino onomastikoei buruzko ikerketak eta berrikuspenak egin, eta irizpideak ezarri behar ditu, eta egiaztatze- eta aholkatze-lanak ere egin behar ditu. Pertsona-izen eta deitura berriei buruzko grafia onartzeaz gainera, zenbait udalerritako ikerketa-lan toponimikoa gainbegiratu da, eta erantzuna eman zaie Euskal Udalen Elkartearen, instituzioen, elkarten eta herritarren kontsultei.

Batzordeak, halaber, erantzuna eman die administrazio publikoetarik (Eusko Jaurlaritzak eta EAeko diputazioak, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa, udalak) iristen diren kontsulta eta eskaerei, eta, horretarako, txostenak eta irizpenak eman ditu. Zehazki, lan hauek egin dira Nafarroako Gobernuarentzat:

- *Nafarroa* koronimoari buruz Patxi Salaberri euskaltzainak txosten bat egin du.
- Biurrun-Olkozko kale-izendegia finkatu da.
- Artzibarko oikonimiari buruz Euskarabideak helarazitako txostena aztertu eta oharrak eta proposamenak egin zaizkio.
- Nafarroako eskualde eta azpieskualdeen izenei buruzko txostena egin da.
- Vianako zenbait kale-izen finkatu dira.
- Mendigorriaren izenaren etimologiari buruzko galderari erantzun zaio, eta hiru toponimoren euskarazko forma finkatu da.

Eusko Jaurlaritzarentzat:

- Eusko Jaurlaritzak bidalitako EAeko erreka-izenei buruzko txostena aztertu eta oharrak egin dira.
- *Salcedo/Saratsu* izenei buruzko galderari erantzun zaio.

Euskararen Erakunde Publikoarentzat:

- Bidarteko Udalaren zalantza bati erantzun zaio.
- Kanboko Udalaren kale-izenak finkatu dira.
- Ostankoako bide- eta karrika-izenak finkatu dira.

Espainiako IGN erakundearentzat:

- IGNren *Directrices toponímicas de uso internacional para editores de mapas y otras publicaciones* obran agertzen diren euskarazko termino geografikoen zuzenketa. Termino generikoen zerrenda aztertu eta oharrak egin dira (amaitu gabeko lana, 2019an amaitzekoa).



Batzordeak, gainera, Onomastika Zerbitzuak aurkeztutako zailantzak argitu ditu. Zehazki, hauek:

- Esteribarko Udalari Artikako herritar-izenari buruzko galderari erantzun dio.
- Gautegizko Udalak aurkeztutako zenbait kaleren izenen euskarazko formak finkatu ditu.
- Aretxabaletako Udalak *Isurieta* eta *Arkaraso* toponimoen grafiari buruz egindako eskaerari Luis Mari Zaldia batzordekide eta euskaltzain urgazleak idatzitako irizpen-txosten baten bidez erantzun zaio.

Antroponimiari dagokionez, *Aretz* mendi-izena pertsona-izen gisa onartzeari buruz herritar batek egindako galderari erantzun zaio, *Željko* eslaviar izenaren euskarazko grafiari buruz herritar batek egindako galderari erantzun zaio, eta *García de Garayo* deituraren euskarazko grafiari buruzko iritzia eman da.

Euskaltzaindiaren 66. araua (Santutegiko izen ohikoenak) zuzendu, eguneratu eta emendatzeko lanak egin dira, eta araugaia prest gelditu da Osoko bilkurari aurkezteko.

Bestalde, pertsona-izendegia berritzeko lehen prestalanak egin dira. Odonimiaren arloan, datu-base batean antolatuta eta sailkatuta dira batzordeak 1999tik 2018ra bitartean emandako irizpenetan ageri diren odonimo guztiak (6.000tik gora).

2019ko ekainean egingo den Onomastika jardunaldirako, Onomastika batzordea eratu da batzorde zientifiko gisa, eta egitarauaren lehen proposamena onartu du.

## IV. 2. Exonomastika batzordea

Exonomastika batzordearen zeregina Euskal Herriaz kanpoko izen berezien arloa lantzea da. Hartan, era guztietako leku-izenak eta pertsona-izenak sartzen dira, edozein alfabetotakoak, bai eta bestelako kanpo-izenak ere, hau da, bestelako izendapenak, hala nola etnia-izenak, artelanen izenak edo gertaera historikoen izendapenak, besteak beste. Batzordeak, halaber, proposamenak egiten ditu kanpoko leku- edo pertsona-izenetatik eratorritako bestelako izen arrunten arloan; adibidez, hizkuntza-izenetan (glotonimoetan), herritarren izenetan edo kanpoko izenetatik eratorritako bestelako adjektibo erreferentzialetan.

Batzordearen plangintzaren araberrako lanez gainera —irizpenak eta arauak prestatzea—, herritarrek edo erakundeek Euskaltzaindiari egiten dizkieten exonomastikari buruzko galderei erantzutea ere bada batzordearen zeregina.

2018an, batzordeak proposatuta, arau hauek onartu edo/eta argitaratu ditu Euskaltzaindiak:

- Otsailaren 16an, 2017an onartutako 185. araua argitaratu zen (*Errenazimentuko pertsona-izenak*).
- Martxoaren 28an, 2017an onartutako 186. araua argitaratu zen (*Atzerriko pertsona-izenak. Grafia-irizpideak. Errege-erreginen eta kidekoen kasua*).
- Maiatzaren 4an, 2017an onartutako 187. araua argitaratu zen (*Munduko zenbait gizarte- eta erlijio-talderen jarraitzaileen izenak eta ordena militar eta ospitalario nagusien izenak*).
- Ekainaren 15ean, 188. araua argitaratu zen (*Munduko mitologiako zenbait izen eta Ekialdeko erlijio-sineskeren arloko zenbait pertsona-izen*).
- Uztailaren 16an 189. araua argitaratu zen (*Amerindiar buruzagien izenak*).
- Irailaren 3an 190. araua argitaratu zen (*Munduko herriak eta etniak*).

## IV. 3. Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa

2018. urtean zehar, hainbat iturri idatzitan ageri den informazio onomastikoa jaso da Euskal Corpus Onomastikora:

- Exonomastika batzordeak paratutako 174. (*Antzinateko herriak. Ekialdeko eta Europako herriak*), 175., 176. eta 177. arauak (*Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak, I, II eta III*).
- *Pyrenaicak* 2018an plazaratutako Euskal Mendizale Federazioaren *Euskal Herriko mendien katalogoa* izenekoaren edizio eguneratua.
- Jean Bidache-k 1906an argitaratutako *Le Livre d'Or de Bayonne*, Baionako katedraleko antzinako dokumentazioa biltzen duena.
- Achille Luchairek 1874an argitara ateratako *Remarques sur les noms de lieux du Pays Basque (Extrait du compte-rendu des travaux du Congrès Scientifique de France)*.
- Michel Morvan-ek 2004an argitaratutako *Noms de lieux du Pays Basque et de Gascogne* lanetik, Euskal Herriko toponimia eta iruzkin guztiak erauzi dira.
- José María Jimeno Jurío ikerlari nafarrak paratu eta 2008an Pamiela argitaletxeak berrargitaratutako *Toponimia Navarra II, Burlada* lana.
- 1992an ikerlari berberak Onomasticon Vasconiae bilduman (9. liburukia) argitaratutako *Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Ansoain* ikerketa, baita 2017an Patxi Salaberri euskaltzainak lan horren berrargitalpenean egindako arautze-lana ere.



- Patxi Salaberri euskaltzainak Euskaltzaindiaren Izenak bilduman (5. liburukia) plazaratutako *Araba/Álava, los nombres de nuestros pueblos* lanean jasotako datu onomastiko eta iruzkin guztiak.

- Jorge Luis Tejedorrek Izenak bilduman (6. liburukia) 2016an argitaratutako *Sestaoko toponimia / Toponimia de Sestao*.

- Luis Miguel Díez de Salazar Fernández-ek 1985ean bildutako *Colección diplomática del concejo de Segura (Guipúzcoa) Tomo I (1290-1400)*, Fuentes Documentales Medievales del País Vasco (6. liburukia), bai eta bilduma berean (7. liburukia) eta urte berean María Raquel García Arancón-en *Colección diplomática de los reyes de Navarra de la dinastía de Champaña 2. Teobaldo II (1253-1270)* ere.

Emendio-lan horien ondorioz, ECO datu-basean 28.121 era dokumental berri gehitu dira, baita 2.099 deitura, 219 pertsona-izen eta 2.507 leku berri ere. Datuen emendioa ez ezik, 2018an datu-basearen egiturari hainbat egokitzapen eta berrikuntza gauzatu dira, 2019an Euskaltzaindiaren webgunean plazaratzen den informazioa (EODA) nabarmen hazteko eta aberasteko asmo sendoa baitu Akademiak.

#### IV.4. Gasteizko toponimia egitasmoa

Euskaltzaindiaren eta Gasteizko Udalaren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenari esker, 1996tik egiten ari da *Gasteizko toponimia historikoa* izeneko ikerketa-proiektua, barnean hartzen dituen hala hiriburua nola XIII. mendeaz geroztik pixkanaka anexionatutako 64 herririk edo biztanle-landaguneak.

Proiektuaren helburu nagusia udalerriko leku-izen guztien azterketa historiko-linguistikoa, sailkapena eta normatibizazioa egitea da; horretarako, bai tokiko artxibategietan (sei mendeko aldi bat da, XIV-XX. mendeak) bai gaur egungo artxibategietan dauden leku-izenak hartzen dira kontuan.

Ikertzeko eta emaitzak argitaratzeko, XI. mendean (1025. urtean) Araba osatzen zuten antzinako merindadeen arabera multzokatu dira herriak. Merindade horiek Donemiliagako *Arabako Goldea* dokumentu ezagunean aipatzen dira, eta, gaur egungo muga administratiboekin bat ez badatoz ere, gidarizat hartu dira ikerlana planifikatzeko eta aurkezteko.

Elena Martínez de Madina euskaltzain urgazle eta Onomastika batzordeko kidea egiten ari da ikerlana, eta 2018ko emaitza seigarren liburua argitaratzea izan da: *Toponimia de Vitoria VI, Arratzua II*, Onomasticon Vasconiae bildumako 32. liburua. Liburu horrek Aberasturi, Andollu, Argandoña, Askartza, Billafranka, Bolibar eta Urizarri Nagusia / Ullibarri de los Olleros herrietako toponimia biltzen du, 1.267 sarrera toponimiko normatibizaturekin eta

12.200 lekukotza dokumentalekin. Horrez gainera, liburuak 491 sarrerara nagusi ditu, bai eta gaur egungo toponimia lokalizatua duten 7 mapa ere.

Bestalde, Arratzuko toponimia ikertzen jarraitu da Gasteizko herri honetako hirugarren tomoa argitaratzeko. Hala, amaiera emango zaio antzinako merindade horren toponimiaren azterketari.

## V. LITERATURA

Euskal Literaturaren Antologia (ELAN) lantzen ari den taldeak, 2018an zehar, Antologiaren bigarren liburukia, *Errenazimentutik Ilustraziora (XVII-XVIII. mendeak)*, osatzen jarraitu du.

Poesiaren kapituluari (I), amaituak jada Joanes Etxeberri Ziburukoa (1), Arnaud Oihenart (2) eta “Amodiozkoak” (4.1) atalak... Testuen hautapena egin ondoren, landu, berrikusi eta burutu dira honako atal hauek: Salvat Monho (3), “Erlizozkoak” (4.2) (Bernard Gazteluzar, Agustin Basterretxea, Kantika espiritualak eta Gabon-kantak barne), “Satirikoak” (4.3) (tartean Jean Robin eta Beñat Mardo), “Laudoriozkoak” (4.4), “Gai askotarikoak” (4.5) eta ahozko transmisioa “Maite kantak” atala (5.2).



Euskal Literatura Antologiaren lantaldea

Prosa erlijiosoaren kapituluari (II A), honako idazleei dagozkien testuak hautatu dira: Axular (1), Joan Tartas (2), Manuel Larramendi (3), Joan Bautista Agirre (4), Frai Bartolome Santa Teresa (5) eta “Beste zenbait prosalari” (6) (Agustin Kardaberaz, Sebastian Mendiburu eta Pedro Astarloa). Horietatik landu, berrikusi eta burutu dira: Axular eta Joan Bautista Agirre.

Prosa saiakerazkoaren kapituluari (II B), Joanes Etxeberri Sarakoaren (1) eta Jusef Egiategiren (2) testuen hautapena gauzatu da.



“Paremiak” kapituluak (V), testuen hautapena egin ondoren, kapituluak landu, berrikusi eta burutu da.

2019ko lehenengo sei hilabetekoan landu, berrikusi eta burutuko dira oraindik zintzilik gelditzen diren kapituluak eta atalak: “Antzertia” (III) eta “Gutunak” (IV) kapituluak; “Poesia” kapituluak “Baladak” atala (5.1); Prosa erlijiosoaren kapituluak, Joan Tartas (2), Manuel Larramendi (3), Frai Bartolome Santa Teresa (5) eta “Beste zenbait prosalari” atalak; eta Prosa saiakerazkoan, Joanes Etxeberri Sarakoa (1) eta Jusef Egiategi (2) atalak.

## VI. AHOSKERA

### VI.1. Ahoskera batzordea

Bilboko egoitza nagusian urtarrilaren 11n eginiko bilkuran eman dio Ahoskera batzordeak Zuzendaritzari egitasmoaren berri, eta 2018ko lehen erdian Pompeu Fabra Unibertsitateko IULAKo Hizkuntz Ingeniaritza unitateko buru den Lluís de Yzaguirre irakasle eta ikerlariarekin aritu da lanean. Ekainaren 6 eta 7an De Yzaguirrek “Tecnologías de análisis y difusión de la lengua oral” mintegia eskaini du Euskaltzaindiaren egoitza nagusian, bertan egon direlarik, Ahoskera batzordez gainera, Atlaseko lankide batzuk. Halaber, Julia Marin Batzordeko aholkulariak maiatzaren 22an ahoskera irakasteko teknikez Donostiako egoitzan emandako mintegian erabili beharreko testuak lantzen aritu da batzordea maiatza bitarte. Mintegi praktikoko horren helburua 2019ko Ahoskera Jardunaldiako aukerak neurtzea eta ezagutzea da. Halako ikasketa eta lanen bidez Batzordeak aurrera egin nahi du aurreko urteetan abiatutako lanbidean, betiere ahoskeraren ikaste eta irakasteko bideak zabaltzeko helburua gogoan, hizkuntzaren estandarizatzeko eta normalizatzekoaren testuinguruan.

Urtearen bigarren erdia 2019an egin beharreko Jardunaldiaren plangintzari, hizlarietako harremanei eta prestaketari eman zaio.

## VII. JAGON SAILA

### VII.1. Corpus batzordea

Batzorde honen zeregin nagusia euskararen corpora eta hizkuntzaren kalitatea zaintzea da. Batzordearen egituraren, hizkuntzaren alorreko galde-erantzunen datu-basea garatzen duen Jagonet zerbitzua dago.

### VII.2. Euskalkien lantaldea

Lantaldeak jarraitu du Labayru Hiztegiko sarrerak aztertzen. Hartara, N, Ñ, S eta T letretako 795 sarrera landu dira. Horietatik, osotara, 297 hitz proposatuko dira *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* 3. itzulirako, eta 498 hitz baztertu dira (hitz horietako batzuk beste euskalki batzuetakoak dira).

### VII. 3. Sustapen batzordea

Batzorde honek jarraiko argitalpenak sustatu ditu: *Euskal Elkaragoaren sortzea eta euskararen geroa*, *Euskara batua eta ahozko erabilera*. *Korapiloak eta erronkak* eta *Araba, euskaraz bidea egiten*. Hori guztiak, 2017an, Euskaltzaindiak antolatutako Jagon jardunaldietatik eratorriak.

2018an “Euskararen erabileraren gakoak” jardunaldia antolatu du Sabino Arana fundazioarekin batera. Halaber, Euskaltzaindiaren mendeurrenaren kariatara, 2019ko urtarrilean egingo den “Hizkuntza gutxiagotuak jagon, euskaraz bizi” jardunaldiaren azken xehetasunak lotu dira. Bertan, bi argitalpen berri aurkeztuko dira: alde batetik, Euskaltzaindiak 1976tik 2018 urtera arte egin dituen Adierazpen Institutuzional guztiak eta, bestetik, euskarari erreferentzia egiten dioten testu juridiko guztien bilduma. Biak ala biak Euskaltzaindiaren Sustapen batzordetik koordinatu dira.



#### VII. 4. Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala)

Euskararen Historia Soziala (EHS) Euskaltzaindiaren egitasmo bat da. Bere ikerketa-esparrua giza dimentsioa da, aldi historiko eta herrialdearen gune jakin batzuetan islatuta, euskararekin harremanetan jarrita aztertzea, eta ondoren gurearekin ukipenean izan diren beste zenbait hizkuntzarekin. Beraz, diziplinarteko jarduera da, hizkuntzaren soziologiaren, hizkuntzalaritzaren, eta, jakina, historiaren oinarritzko elementuak konbinatzen dituena.

2018. urtean zehar, Euskaltzaindiaren mendeurrenaren kariatara antolatu diren jardunaldi akademikoetan partaidetza zuzena izan du egitasmo honek. Urrian izan zen Arantzazuko XVII. Biltzarreko hasierako ponentzia “Euskaltzaindiaren sorrera eta euskara batuaren egitasmoa perspektiba soziohistorikotik” prestatu eta aurkeztu du. Halaber, 2019an izango diren hizkuntza eskubideei buruzko jardunaldietarako hasierako txostena ondu da: “Euskaltzaindiaren ehun urteko jagote-lana: zenbait mugari”.

2015ean prestatu zen *Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa* argitalpenaren ingelesezko laburpen-libururako prestaketa lanak egin dira. Izenburuak argi adierazten duen bezala, lan originalak euskararen historia sozialaren azterketarako eredu metodologiko eraginkorra aurkeztu eta deskribatzeaz gain, adibide modura aplikagarri ere izan dadin nahi du. Saiakera sistematiko bat da, berritzailea, hizkuntza baten kanpo historiari dagokion ekintza ororen sailkapenean eragina duten oinarritzko parametroen (gure kasuan 30) azterketarako baliagarria dena. Hargatik, hizkuntzaren eboluzioaren deskribapen kronologikoan sakondu da (lurralde desberdinetan mintzo diren hizkuntzak finean) eta, bereziki, hizkuntza gertaera horien eboluzioan, asko ala gutxi, eragin ahal izan duten faktore sozial, kultural, ekonomiko, teknologiko eta politiko-administratiboetan. Azterketa-eremua handitu da hizkuntzaren soziologian oso oinarritzkoak diren kontzeptuekin: batik bat hizkuntzaren soziologia dinamikoaren azterketarekin eta proiektzio-, kontrastaketa- eta preskripzio-eremuetatik (*corpus*, *status*, *acquisition* eta *identity language planning* hizkuntza teknikoan) jasotako perspektibekin. Lan originalak, bai bere perspektiba orokorrean, bai eta denbora, espazio eta sozio-funtzional arloko zenbait zedarrizetan, hizkuntza portaeraren antolamendu sozialaren zehaztasun teoriko-metodologikoak deskribatzen ditu. 2018an, ingelesera moldatzearekin batera, hasierako bertsioa zuzentzen hasi da, eta behin betiko bertsioa 2019an izatea espero da. Hasierako dokumentua laburtu eta moldatu egin da irakurleko orokorrago batentzako ulergarri izan dadin. Batik bat, hizkuntzen historia sozialaren azterketari, eta ez bakarrik euskararen aferari lotutakoei, dagozkion auzi metodologikoetan adituak direnentzat. Halaber, lehenetsuna eman zaio nazioarteko literatura soziohistorikoan jasoak dauden adibideak jasotzeari.

Eginbehar horiekin batera, 2016an, Euskaltzaindiaren Luis Villasante ikergunean, Donostian historikoki mintzatu izan diren (gutxienez) bost hizkuntzen historia sozialaren eboluzioaz egindako jardunaldian irakurri ziren txostenak jaso eta moldatu dira. Helburua, al bait azkarren, Etxeberri bildumako liburu batean argitaratzea da. Egiari zor gai horri buruz ez dago dokumentazio usu. Hala ere, tantaka-tantaka datu berriak agertzen hasi dira, eta oinarri horrekin, modu diakroniko batean, hizkuntza bakoitzaren hedapen soziolinguistiko eta soziofuntzionalaren azterketa egiten dihardugu.

Garai historiko urrunagoetara joz, *La Vasconia peninsular en las fuentes árabes (años 711-929)* argitaratu da. Halaber, Euskal Herriaren onomastika osaketa lexiko-genesikoan azterketa zabaldu eta findu da, batez ere euskal perspektiba propioan sakonduz. Pentsatzen dugu bi lanek hirugarren dokumentu bat ahalbidetuko dutela, non Goi Erdi Aroko hizkuntza portaeraren antolaketa sozialaren gainean argibideak eskaini ahal izango diren.

Bukatzeko, Joanes Etxeberri egitasmoak zenbait euskal udalerritan egin diren soziolinguistika historikoari buruzko hainbat ikerketatan parte hartu du (Zumaia eta Debagoiena). Horrekin batera, euskararen historia sozialaren bilketarekin jarraitu da.

#### VII . 5. Erlea aldizkaria

2018an, aldizkariaren 12. zenbakia kaleratu da.



Erlearen lehen eta azken zenbakiak



## VIII. EGITURAZKO BATZORDEAK

### VIII. 1. Argitalpen batzordea

Batzorde honek Euskaltzaindiaren argitalpen guztiak programatu eta antolatzen ditu. Horien artean *Euskera* aldizkaria, Akademiaren organo ofiziala, 1919tik kaleratzen dena, nahiz eta 1938-1952 eta 1954-1955 urteen artean etenak izan. Agerkari horren bitartez ezagutzera eman ditu Euskaltzaindiak historikoki bere lanak.

2018an agerkariaren bi zenbaki aurkeztu dira, horietako bat, bitzita akademikoaren berri ematera bideratua, eta, bestea, arloko ikerketa-lanak biltzen dituen.

Batzordearen zuzendaritzapean, Argitalpen zerbitzuak argitalpenen egunerokoak kudeatzen ditu. 2018an argitaratu diren lanen berri Argitalpen zerbitzuaren atalean ematen da.

### VIII. 2. Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea

Euskaltzaindiaren liburuzainak, Andres Urrutia jaunak eta Bibliotekako zuzendariak ohiko harremanak dituzte gai garrantzitsuenak kudeatu eta bideratzeko. Batzorde akademikoa deitua izan ez bada ere, liburuzaina eta zuzendaria, erakundearen kudeatzailearekin zein idazkariordearekin bost aldiz batzartu dira Bibliotekaren lan nagusien jarraipena egiteko.

### VIII. 3. Informazio eta Telekomunikazioaren Teknologiak (IKT) batzordea

Batzorde honen bi zeregin nagusiak dira Euskaltzaindiaren edukiak erabilaraztea eta gizarteratzea, eta testu-corpusak elikatzea, egituratzea, bateragarri bihurtzea eta gizarteratzea.

2018an, Euskaltzaindiaren argitalpenen bertsio digitalak erakundearen webgunean txertatzeaz gain, webgunea bera eguneratzeko lehenengo pausoak eman dira. Asmoa informazioa hobeto egituratzea eta irismen errazeko bilatzaile bat izatea da. Horretaz landa, *Orotariko Euskal Hiztegia* corpus bilakatzeko egitasmo bat abian jarri da.

### VIII.4. Euskara Batuaren Eskuliburua batzorde suntsikorra

Batzorde honen helburu nagusia *Euskara Batuaren Eskuliburua* prestatzea da. Hein berean, eskuliburuaren asmoa Euskaltzaindiaren jardura arauemailearen berri ematea da, eta, beraz, euskararen hainbat ikerketa eremu arautzen ditu: ahoskera, lexikoa, kalko okerrak, morfologia, sintaxia, onomastika eta ortotipografia.

Eskuliburuaren ikuspegia erabat praktikoa da eta euskal hiztun jantzia (EGAtik gorakoa, baina espezialista izan gabe) da hartzailea. Orobat, eskuliburua bi euskarritan argitaratu da: batetik, paperean, aldi baterakoa izan dena, eta, bestetik, digitala, egunean-egunean osatuz joan dena.

Urrian aurkeztu da, Euskaltzaindiaren mendeurrenaren karietara Arantzazun egin den jardunaldian.



## IX. RESURRECCION MARIA AZKUE LITERATURA SARIAK

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa fundazioak antolatzen dituzte haur eta gazteei zuzenduak dauden literatura sari hauek. Bi kategoriatan banatuak daude: A kategoria, 11 eta 14 urte bitarteko ikasleentzako, eta B kategoria, 15 eta 18 urte bitartekoentzako. Kategoria bakoitzean bi literatur genero saritzen dira: narrazioa eta olerkia.

Aurten 151 lan aurkeztu dira.

2018ko irabazleak honako hauek izan dira:

Saria	Lan Saritua	Egilea	Ikastegia
<b>A: Narrazioa</b> 11 - 14 urte	1. saria: <i>Berri txarrak besterik ez</i> 2. saria: <i>Eguzkiaren itzalpean</i> 3. saria: <i>Begitara begira</i>	Oihane Retegi Mattin Etxebeste Malen Bastida	Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) Urola Ikastola (Azpeitia)
<b>A: Olerkia</b> 11 - 14 urte	1. saria: <i>Orri zuri huts bat</i> 2. saria: <i>Zure besoetan nagoenean</i> 3. saria: <i>Argitzen nauen izarra</i>	Haitz Aranburu Malen Etxebeste Nora Uria	Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) Urola Ikastola (Azpeitia)
<b>B: Narrazioa</b> 15 - 18 urte	1. saria: <i>Ispiluaren aurrean</i> 2. saria: <i>Kresal haizea</i> 3. saria: <i>Odola</i>	Maddi Aiestaran Leire Vargas Uxue Iturbide	Beasaingo BHI Fray Juan de Zumarraga Institutua (Durango) Ignazio Arozena – Benito Barrueta BHI (Bermeo)
<b>B: Olerkia:</b> 15 - 18 urte	1. saria: <i>Korapiloak</i> 2. saria: <i>Kresala</i> 3. saria: <i>Hitzak hots</i>	Maddi Aiestaran Jon Kortaberria Anne Arrizabalaga	Beasaingo BHI Beasaingo BHI Haurtzaro Ikastola (Oiartzun)

Urtero bezala, aurten ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, betiere Euskaltzaindiak izendatutakoak.

Hauek izan dira aurtengo epaimahaikoak:

A mailan: Miren Billelabeitia, Igone Etxebarria eta Manu Lopez Gaseni.

B mailan: Yolanda Arrieta, Amaia Jauregizar eta Patxi Zubizarreta.



R.M. Azkue Sariketako 2018. urteko edizioan saritutako gazteak eta epaimahaiko kideak, Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindiko ordezkariekin.

### 3. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK







Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu horiek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira zerbitzuak: Idazkaritza, Ekonomia, Azkue Biblioteka, Onomastika, Argitalpenak, Komunikazioa eta Irudia, eta Informatika eta Telekomunikazioa zerbitzuak. Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua, berriz, zeinaren barruan baitago Jagonet, Luis Villasante Euskararen Ikergunean dago kokatuta.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiri-burutan, hots, Baionan, Donostian, Gasteizen eta Iruñean kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkariak. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek egoitzatik eta ordezkarietatik bideratzen dira.

Osoko bilkurak hilean behin egiten dira Bilbon, Donostian, edo, erakundeari hala eskatzen zaionean, Euskal Herriko beste hiri eta herri batzuetan. Zuzendaritzako bilerak hilean bitan egiten dira, bideo-hitzaldiz. Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan horien guztien berri ematen dio Zuzendaritzari eta baita, ezarritako epeetan, dagokien herri administrazioei ere, behar diren txostenak prestatuz. Herri aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, batzorde teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu, kudeatzailearekin batera.

## I. AZKUE BIBLIOTEKA ETA ARTXIBOA ZERBITZUA

Hiru atal nagusitan bereizten da:

### I. 1. Artxiboa

Urte honetako lana bost funts desberdinetan gauzatu da, banan-banan aipatuko ditugunak:

- Eugenio Arotzenaren Antzerki bilduma (ABA-EAA): Artxi-boaren katalogazioa amaitutzat jo da. Guztira 857 dossier sortu dira, lau serietan banatuta. Zenbait material berezi (kartelak, argazkiak, DVDak...) momentuz ez dira katalogoan barneratu, beren katalogazioak zailtasun tekniko bereziak dituelako.
- Koldo Larrañagaren funtsa (ABA-KLA): Dohaintza osoaren katalogazioa amaitutzat jo da. Funts bibliografikoei dagokienez, zati bat ABK katalogoan integratu da (236 item) eta beste

bat PURG atalean (602 item). Funts artxibistikoei dagokienez, ABA katalogoan integratu dira, 1.401 dossier deskribatu direlarik.

- Jose Basterretxea “Oskillaso” funtsa (ABA-OSK): Dohaintza osoaren katalogazioa amaitutzat jo da. Funts bibliografikoei dagokienez, zati bat ABK katalogoan integratu da (116 item) eta beste bat PURG atalean (102 item). Funts artxibistikoei dagokienez, ABA katalogoan integratu dira, 75 dossier deskribatu direlarik.
- Erakundearen artxibo administratiboa (AB-EUS): Prentsa zerbitzutik dokumentazio-multzo handi-handia zegoen pilatuta (2016ko ekainetik 2018ko irailera bitartekoa, biak barne). Guztia aztertu, txukundu eta ABA-EUSen integratu da. Bolumena eta pertsonal gabezia iraunkorra, eta informazioa artxibatzeke sistema berria kontuan izanik, argazkiei eta bideoei dagozkien protokoloak sinplifikatu egin dira.
- Piarres Xarrittonen biblioteka eta artxiboa eskuratzea. Atal hau ez zegoen plangintzan aurreikusita. Hainbat hilabete iraun duen prozesu batean, salmenta-hitzarmena sinatu da, eta funts bibliografiko eta artxibistiko guztiak Euskaltzaindiaren egoitzara (artxiboa) eta Gordailura (liburu eta aldizkariak) ekarri dira. Datorren urtean ekingo zaio funtsak atondu eta katalogatzeari.

### I. 2. Biblioteka

Erosketa eta harpidetzetarako aurrekontu faltan, katalogazio lanak gutxieneko mailan mantendu dira (453 item).

### I. 3. Dokumentazioa eta Harrera

Pertsonal eta baliabide faltagatik sistemaren ezaugarri nagusiak mantentzera bideratu dira lanak: dagokion protokoloaren arabera Euskaltzaindiko kideen gaineko dokumentazioaren bilketa eta eguneratze sistematikoa.

Horrekin batera, Bibliotekara hurbildu diren 199 lagunei arreta-zerbitzua eskaini zaie eta 1.344 kontsulta bideratu dira.

Orobat, 10 talde-bisita bideratu dira, guztira 222 pertsoneri zerbitzu hau eskainiz.

Halaber, Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren ospakizuen harira, aurten ahalegin berezi bat egin da ildo horretako lanak aitzinatzeke: *Erlea* aldizkariaren kolaborazio berezia, webgune berriaren egitasmoarekiko kolaborazioa, erakusketa birtualak (2), Ondare jardunaldiak, “Baiona 1964: euskara batuaren zedarria” erakusketa, Resurrecion Maria Azkueren idazlan guztien bertsio digitalak webgunean jartzea, etab.



## II. ONOMASTIKA ZERBITZUA

Zerbitzuak Areatza, Aretxabaleta, Aduna, Alegi, Arama, Bakio, Basauri, Bermeo, Berriatua, Dima, Gaubea, Gautebiz, Lazkao, Ea, Getxo, Navaridas, Bastida, Ondarroa, Zalla eta Zeberioako udal mapak gauzatzeko aholkularitza eman du. Era berean, pertsona-izenei buruzko 547 eskari artatu ditu, eta 261 deiturei buruzkoak. Eskari gehienak Erregistro zibiletatik eta bake-epaitegietatik etorri dira, batez ere Euskal Autonomia Erkidegotik eta Nafarroako Foru Komunitatetik, nahiz eta Espainiako estatutik ere batzuk jaso diren.

Halaber, herri erakundeetatik toponimia arloko beste kontsulta batzuk iritsi dira: Nafarroako Gobernutik edo Eusko Jaurlaritzatik; Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru aldundietatik; Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikotik eta hainbat udaletatik.

## III. ARGITALPEN ZERBITZUA

2018an argitaratu dira:

- *Euskera*, 2017, 1. Egileak: Batzuk.
- *Euskera*, 2017, 2. Egileak: Batzuk.
- *Oroitidazkia 2017* (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez).
- *Erlea 12*. Egileak: Batzuk.
- *Euskararen Herri Hizkeren Atlas IX*. Egileak: Batzuk.
- *Euskara Batuaren Eskuliburua*. Batzuk.
- *Narrazioak eta olerkiak, 2017*. Egileak: Batzuk.
- *Ardi galdua. Arantzazutik igarota*. Koordinatzaileak: Ana Toledo eta Elixabete Perez Gaztelu.

Argitalpenen salmenta, batez ere, banatzaileen bitartez egiten da. Maila apalago baten liburu-denden, liburu azoken eta eskari zuzenen bidez.

Argitalpenik salduena *Euskara Batuaren Eskuliburua* izan da.

## IV. INFORMATIKA ZERBITZUA

Euskaltzaindiaren Informatika zerbitzuaren helburu nagusia erakundearen telekomunikazio eta informatika zerbitzuak egoki mantentzea da. Horrekin batera, zerbitzu horiek hobetze aldera, berrikuntza proiektuak koordinatzen dira.

2018an zehar honako lan hauek egin dira:

- *Orotariko Euskal Hiztegia* corpus bihurtzeko egitasmoaren baitan, hiztegiak erredaktatzeko softwarea garatzeko ezinbestekoa den berrikuntza teknologikorako proiektua bukatu da.

- Akademiaren zerbitzariak eta ia ordenagailu guztiak biltzen dituen birtualizazio atarian eguneratze lanak egin dira, eta horrekin batera datu-base eta aplikazioena.

- Webgune berrituan edukiak gaurkotu eta argitalpen berriak txertatu dira, Euskal Corpus Onomastikoan datu kargak egin dira, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* datu-baseak eguneratu dira, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren X* liburukiaren argitalpen prozesurako esportazioa egin da, *Euskera* agerkariaren hemerotekan artikulua berriak txertatu dira.

## V. KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA ZERBITZUA

Zerbitzu honen helburu nagusia da gizarteak Akademiaren jardueraren berri izatea eta, era berean, Akademiak beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea.

Horretarako, zeregin hauetan saiatzen da Komunikazio eta Irudi zerbitzua: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzen; euskaltzainen curriculumak egin eta eguneratzen; webguneko bestelako atalak gaurkotzen; *Plazaberri* bloga ere kudeatzen du zerbitzu honek, eta, gainera, sare sozialetan Akademiak dituen plataformak zaindu eta elikatzen ditu, egunero (Facebook, Twitter, Youtube eta Instagram, batez ere); azkenik, Euskaltzaindiaren ekitaldietako argazkien eta bideoen ardura ere zerbitzu honi dagokio (2018an 26 bideo ondu dira).



## **VI. HIZKUNTZA KALITATEAREN BEHATOKIA ZERBITZUA (HIZBEA)**

Euskaltzaindiak 2013ko Barne Jardunaldietan, Akademiako beste zerbitzuekin elkarlanean jardungo zuen zerbitzu zentral eta orokor bat sortzea erabaki zuen: Hizkuntza Kalitatearen Behatokia. Honen lanaren helburuak hauek dira:

- a) Euskaltzaindiak eredugarria izan behar du bere argitalpenen euskara mailari dagokionez.
- b) Akademiaren ekoizpenak zabalkunde didaktikoa izan behar du. Horretarako baliabide guztiak erabiliko ditu eta tresna informatikoak lehenetsiko ditu.
- c) Euskalgintzak zer premia duen identifikatu eta haren eskariak ahalik eta azkarren erantzun.
- d) Lan eta beharizan hurbilenak lehenetsi, urrutiagoko lanak alboratu gabe.

Hizbeak hainbat liburu eta lan zuzendu ditu 2018an, Argitalpen batzordeak eta Irudia eta Komunikazio zerbitzuak eskaturik. Jatorrizko dokumentuak eta zuzenduak datu-base batean txertatu eta jaso dira.

Zenbait kasutan, txosten laburrak idatzi dira, testu batzuen hizkuntza kalitatearen zer-nolakoak dokumentatu eta aztertzeko.

# 4. HERRI-ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK





Euskaltzaindiak hainbat herri-erakunde, instituzio, hedabide eta elkarterekin lankidetzaz hitzarmenak dauzka. Zerrenda osoa [www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/erakundea/hitzarmenak](http://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/erakundea/hitzarmenak) web orrialdean dago ikusgai.

Akademiak urtero sinatzen ditu erakunde eta elkarte horietako askorekin dituen hitzarmenak garatzeko akordioak. Horrekin batera, Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren kariatara, ehun urte horiek ospatzeko egingo diren jardunaldi eta ekitaldien jarraipena egitera bideratutako hitzarmenak sinatu dira 2018. eta 2019. urteetan hainbat hedabiderek. Horien guztien berri *Plazaberri* blogean eman da, eta, beraz, atal honetan herri-erakunde eta elkarteekin sinatu diren hitzarmen berrien edo berezien kronika besterik ez da egingo. Lau izan dira 2018an lehenbiziko aldiz sinatu diren edo esangura berezia duten hitzarmenak:

#### **Martxoaren 14an, Nafarroako Parlamentuak eta Euskaltzaindiak lankidetzaz hitzarmena berri dute**

Antzinako testu juridikoen erakusketa, izaera lexikografikoko euskarazko *Hiztegi Juridiko-Parlamentarioaren* hobekuntza eta Mendeurrenaren ekitaldietan parte hartzea aurreikusten dira, eta hiru urteko indarraldia izanen du. Gero, iraupen bereko ondoz ondoko aldiatarako luzatu ahalko da. Proposatzen diren egitasmoetarako berariaz antolatzen diren lantaldeen koordinazio lana Euskaltzaindiak egingo du, eta Nafarroako Parlamentuaren esku jarriko ditu lan horien emaitzak eta baita erabiltzeko baimenak ere.

Hitzarmen honen xedeak atal desberdinak ditu. Alde batetik, antzinako euskarazko testu juridikoen erakusketa bat egiteko helburua du, baita izaera lexikografikoko euskarazko *Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa* hobetzeko ere. Bestalde, Euskaltzaindiaren Mendeurrena dela eta, 2018ko eta 2019ko udazkenean antolatuko diren ekitaldi eta jardunaldiak elkarren artean banatzea aurreikusten da. Proiektu hauetan guztietan euskararen lurraldeetako elkarte, unibertsitate eta erakundeek parte hartu ahal izango dute.

Helburu horrekin, Nafarroako Parlamentuak bere testu juridikoen dokumentu funtseko testuak Euskaltzaindiaren esku jartzeko konpromisoa hartu du, testu hauek Parlamentuko terminologian eta lexikoan duten balioa aintzat hartuta. Honela, Euskaltzaindiak eguneratze lanak egingo ditu, eta lan honetan beste parlamentu eta erakunde batzuek ere parte hartuko dute. Lan hau Lexikoaren Behatokia izeneko proiektu zabal baten baitan dago, egun esparru eta formatu desberdinetan erabiltzen diren euskarazko 68 milioi hitz-testutako datu-basea osatzen duena.

#### **Maiatzaren 15ean, hiru urterako egin den lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Ortzadar LGBT elkarteak eta Euskaltzaindiak**

Ortzadar LGBT elkarteak eta Euskaltzaindiak lehenengoz sinatu dute lankidetzaz hitzarmena. Hitzarmena hiru urterako egin da. Euskarari dagozkionetan, eta Euskaltzaindia erakunde aholkuemaile ofiziala den aldetik, Ortzadar LGBT elkarteari aholkularitza eskainiko dio, bereziki:



Nafarroako Parlamentuko kideak eta Euskaltzaindiaren ordezkariek

- Gradu bukaeran eta Master ikasketetan elkarteak sustatzen dituen deialdietan euskararen erabilera normalizatua eta jasoa ziurtatzeko.
- Elkarteak bideratzen duen aldizkari zientifikoan euskarari toki egokia eta duina emateko.
- Aurreko bi xedapenen ondorioz sortzen den euskararen testu-masa eskuratuko dio Ortzadar LGBT elkarteak Euskaltzaindiari.
- Euskaltzaindiak, besteak beste, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* elikatzen duen Lexikoaren Behatokia elikatze baliatuko du euskarazko testu-masa hori.
- Era berean, Ortzadar LGBT elkarteak Euskaltzaindiari aholkularitza eskainiko dio herritarren berdintasuna, bizikidetzaz, sexu-askatasuna eta giza eskubideak *Euskaltzaindiaren Hiztegian* zein bestelako hizkuntza baliabideetan are hobeto islatuta ager daitezen.



**Uztailak 11n, Euskaltzaindiak eta Hezkuntza Sailak beraien arteko elkarlana indartuko dute datozen urteetan**

Besteak beste, akordio honen bitartez Euskaltzaindiak euskararen batasunerako bidean eman dituen arauen, gomendioen eta irizpenen zabalkundean lagunduko du Hezkuntza Sailak, eta EIMAk *Euskara Batuaren Eskuliburua* (EBE) egitasmorako baliagarriak izan daitezkeen materialak Euskaltzaindiaren esku jarriko ditu. Akordioarekin Euskaltzaindiaren eta Hezkuntza Sailaren koordinazioa eta lankidetzeta indartu nahi da, Hezkuntza Sailak azken hamarkadetan martxan duen EIMA programaren bitartez. Eusko Jaurlaritzak, unibertsitate aurreko euskarazko ikasmaterialgintza babesteko, indartzeko, garatzeko eta diruz laguntzeko eratu zuen EIMA programa, Euskararen Normalizaziorako Legean oinarrituz.



Andres Urrutia eta Cristina Uriarte, Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua

**Azaroaren 12an, Euskaltzaindiak eta Bizkaisidak GIB/HIESarekin lotutako estigmatik gabeko hizkuntza bultzatuko dute**

Euskaltzaindiak eta Bizkaisidak GIB/HIESaren eremuan erabiltzen den euskal terminologia gaurkotu eta gomendatzeko elkarlanerako akordioa sinatu dute.

Euskaltzaindiak euskal errealitate sozialera hurbiltzeko duen konpromisoan kokatzen da akordioa, eta baita Bizkaisidak hizkuntzaren eremuan GIBak atxikia duen estigmaren kontrako borrokan ere.

Tratamenduetan aurrerapena lortu arren, beldurrak eta estigmak errotuta diraute gizartean, baita 90eko hamarkadan GIBa infekzio kroniko maneagarri bilakatu zuten jarduera handiko tratamenduak iritsi ostean jaio ziren pertsona horietan ere.

Horregatik, gaur egun, GIBaren kontrako borrokan jarraitzea egoera bigegabe honen kontra egitea da. Hizkuntzak pentsamendua sortzeko orduan duen garrantzia ikusita, GIBaren errealitatera hurbiltzeko erabiltzen dugun hizkuntza egokitzea beldur horren aurka irabazitako borroka da. GIBarekiko estigma orokorra infekzioaren inguruko beldurrean oinarritzen da. *Kutsatze, kutsatuta* edo *Hiesa kutsatzea* bezalako hitzen erabilerak, zehatza ez izateaz gain, estigma hori sustatzen du. GIBaren gaia promiskuitatearekin, moralarekin edo mota bateko jokoera sexua- len inguruko kontzeptuekin lotzeak GIBa bera arrazoirik gabe urruntzen du gizartetik. Hala, zentzuzkoa da GIB infekzioaren inguruan aritzeko *kutsatu* bezalako hitzen definizioan eta gaurkotzean lan egitea, honen konnotazio negatiboek GIBaren inguruko estigma indartu eta euskal hiztunak nahi gabeko konplize bihurtzen dituelako.




Andres Urrutia euskaltzainburua “40 urte. LGBTI askatasuna eta berdintasuna” erakusketaren inagurazioan



Andres Urrutia, Jon Darpon Jaurlaritzako Osasun sailburua eta Bizkaisidako GIB/HIES ordezkaririk

# 5. WEBGUNEA ETA GIZARTERATZE LANA





www.euskaltzaindia.eus	2017	2018
Bisitak guztira	856.029	1.039.530
Euskaltzaindiaren Hiztegia	1.732.878	1.261.585
EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia)	921.254	1.128.898
Web-orrialde bistaratzeak, guztira	4.024.707	4.431.147


Bestalde, Euskaltzaindiak zerbitzu zuzena eskaintzen die hiritar askori, eta egoitza eta ordezkarietatik kontsulta ugari erantzuten zaio: hizkuntza alorreko galderak, ziurtagiriak, irizpenak, bisita gidatuak eta abar. Egoitzan, Akademiak elkarte eta kultur-eragileen eskura dagoen ekitaldi areto bat dauka, betiere euskararekin zerikusia duten ekitaldiak antola ditzaten.

**Euskaltzaindiaren bisitariak 2018an:**

	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	iraila	urria	azaroa	abendua	guztira
<b>ADMINISTRAZIOA</b>	<b>27</b>	<b>28</b>	<b>13</b>	<b>22</b>	<b>32</b>	<b>21</b>	<b>13</b>	<b>19</b>	<b>42</b>	<b>32</b>	<b>24</b>	<b>273</b>
<i>Argitalpenak</i>	1	6	2	0	6	3	2	3	6	12	8	49
<i>Onomastika</i>	12	13	7	17	19	8	6	7	15	10	7	121
<i>orokorra</i>	14	9	4	5	7	10	5	9	21	10	9	103
<b>BIBLIOTEKA</b>	<b>14</b>	<b>14</b>	<b>15</b>	<b>11</b>	<b>24</b>	<b>17</b>	<b>16</b>	<b>19</b>	<b>20</b>	<b>30</b>	<b>19</b>	<b>199</b>
<i>Irakurle gela</i>	8	9	4	3	6	10	10	9	14	18	12	103
<i>Orokorra</i>	6	5	11	8	18	7	6	10	6	12	7	96
<b>Guztira</b>	<b>41</b>	<b>42</b>	<b>28</b>	<b>33</b>	<b>56</b>	<b>38</b>	<b>29</b>	<b>38</b>	<b>62</b>	<b>62</b>	<b>43</b>	<b>472</b>



# 6. BALANTZE EKONOMIKOA





Oroitidazkian agertzen diren Balantzea eta Galdu-Irabazien kontua PKF ATTEST ikuskaritza enpresak ikuskatu ditu.

2018ko ekitaldiari dagokion ikuskaritza lanaren ondorioz, PKF ATTESTek ziurtatu egin du Euskaltzaindiaren 2018. urteko kontuek arlo esanguratsu guztietan erakundearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dutela, baita 2018ko abenduaren 31n bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiarekin bat etorritik, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipio eta arauekin.

Urte amaierako Balantzea Euskaltzaindikiko ondarearen egoera azaltzen duen agiria da, eta Akademiak daukan ondasunen zerrenda zehazten du (Aktiboa), ondare hori finantzatzeko beharrezkoak diren baliabideekin batera (Pasiboa).

Aktiboak erakundeak dituen ondasunak eta eskubideak (ibilgetua, instalazioak, izakinak, dirua...) erakusten ditu.

Pasiboan Aktiboan bildutako ondasunen finantzaketa iturriak zehazten dira: erakundearen ondare garbia, hornitzaileak eta obligazioak.

Urteko emaitzen kontuak Euskaltzaindiak erreferentziako ekitaldian izandako diru-sarrerak eta gastuak islatzen ditu, eta bien arteko aldea da ekitaldiaren emaitza. 2018ko ekitaldiari dagokionez, hauek dira ondoriorik adierazgarrienak:

- 1.- Euskaltzaindiak ekitaldi orekatua izan du. Jasotako eta gastatutako kopuruak berdintsuak izan dira.
- 2.- Diru-sarreraren zenbatekoari dagokionez, 2018. urtea aurrekoak baino zerbait hobea izan da, 2,9 milioi euroko diru-sarrerak izan baititu Euskaltzaindiak. Ohiko jarduerari dagokionez, diru-sarrerak aurreko urteetako kopuruetan mantendu badira ere, Euskaltzaindiaren Mendeurrenarekin lotutako jarduerak izan dira ezohiko dirulaguntza gehigarriak ekarri dituztenak.
- 3.- Gastuak diru-sarreretako zenbatekora egokitu behar izan dira, halaber, bai Euskaltzaindiaren ohiko jarduerari dagokionez (zerbitzuak, batzordeak eta lantaldeak, ikerketa egitasmoak, e.a.), bai Mendeurrenarekiko jardueretan (jardunaldi akademikoak, egitarau instituzionala, erakusketak, argitalpenak eta ekitaldi artistiko-kulturalak).



2018. urtea

**EUSKALTZAINDIA**

Balantzea (eurotan)

<b>AKTIBOA</b>	<b>2018/12/31</b>	<b>2017/12/31</b>	<b>PASIBOA</b>	<b>2018/12/31</b>	<b>2017/12/31</b>
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>680.989</b>	<b>635.190</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>1.448.802</b>	<b>1.477.186</b>
<b>Ibilgetu ukiezina</b>	<b>109.82</b>	<b>8.062</b>	<b>Fondo propioak</b>	<b>1.144.283</b>	<b>1.146.022</b>
Patenteak, lizentziak, markak eta antzerakoak	359	2.575	Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.146.022	1.147.494
Aplikazio informatikoak	109.443	5.487	Ekitaldiko soberakina	(1.739)	(1.472)
<b>Ibilgetu materiala</b>	<b>540.586</b>	<b>596.527</b>	<b>Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak</b>	<b>304.519</b>	<b>331.164</b>
Lurrak eta eraikuntzak	455.325	482.908			
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	85.261	113.619			
<b>Epe luzeko finantza-inbertsioak</b>	<b>30.601</b>	<b>30.601</b>			
Beste aktibo finantzarioak	30.601	30.601			
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>1.357.120</b>	<b>1.348.571</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>589.307</b>	<b>506.575</b>
<b>Izakinak</b>	<b>23.452</b>	<b>14.912</b>	<b>Epe laburreko zorrak</b>	<b>229.469</b>	<b>115.103</b>
Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak	53.749	4.289	Beste pasibo finantzarioak	229.469	115.103
<b>Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</b>	<b>662.237</b>	<b>608.037</b>	<b>Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak</b>	<b>304.519</b>	<b>391.472</b>
Hainbat zordun	27.996	16.550			
Zordunak, Herri Aginteak	634.241	591.487	Hornitzaileak	78.894	146.597
<b>Epe laburreko finantza-inbertsioak</b>	<b>800</b>	<b>800</b>	Langileria	19.264	6.190
			Hartzekodunak, Herri Aginteak	249.590	238.766
<b>Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</b>	<b>616.882</b>	<b>720.533</b>			
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>2.038.109</b>	<b>1.983.761</b>	<b>PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA</b>	<b>2.038.109</b>	<b>1.983.761</b>



2018. urtea

## EUSKALTZAINDIA

## Galdu-irabazien kontua (eurotan)

<b>EKITALDIA</b>	<b>2018</b>	<b>2017</b>
<b>Erakundearen berezko jardueraren sarrerak</b>	<b>2.859,826</b>	<b>2.551.424</b>
Salmentak, promozioak eta lankidetzaren hitzarmenak	92.670	43.924
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak	2.767.156	2.507.500
<b>Diru-laguntzengatikoko gastuak</b>		<b>(1.720)</b>
<b>Ekoizkin bukatuen eta fabrikazioan dauden ekoizkinen aldaketa</b>	<b>8.540</b>	<b>(4.429)</b>
<b>Ustiapeneko bestelako sarrerak</b>		<b>27</b>
<b>Pertsonal gastuak</b>	<b>(1.419.805)</b>	<b>(1.372.028)</b>
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(1.091.879)	(1.050.813)
Gizarte-zamak	(327.976)	(321.215)
<b>Ustiapeneko bestelako gastuak</b>	<b>(1.386.915)</b>	<b>(1.082.586)</b>
Kanpoko zerbitzuak	(1.386.705)	(1.082.213)
Tributuak	(113)	(537)
Merkataritza eragiketarik datozen horniduren aldaketak, hondatzeak eta galerak	(97)	164
<b>Ibilgetuen amortizazioa eta hondatzea</b>	<b>(86.781)</b>	<b>(114.764)</b>
<b>Ekitaldiko soberakinari intsuldatutako kapitaleko diru-laguntzak</b>	<b>26.652</b>	<b>27.454</b>
<b>USTIAPENEKO SOBERAKINA</b>	<b>1.517</b>	<b>3.378</b>
<b>Sarrera finantzarioak</b>	<b>41</b>	<b>107</b>
Balore negoziagarriak eta bestelako finantza-tresnak	41	107
Horniduren eguneratzea		
<b>Gastu finantzarioak</b>	<b>(3.297)</b>	<b>(4.957)</b>
Hirugarrenetikiko zorrenak	(3.297)	(4.957)
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA</b>	<b>(3.256)</b>	<b>(4.850)</b>
<b>EKITALDIKO SOBERAKINA</b>	<b>(1.739)</b>	<b>(1.472)</b>



**EUSKARA EHUNTZEN**  
euskaltzaindia